

TUTORETZARAKO EKINTZA PLANA

1. HELBURUAK

- Ikaslegoaren garapen psikosoziala bultzatzea.
- Irakaskuntza-ikasketa prozesua optimizatzea.
- Irakaslegoaren irakaskuntza eragina koordinatzea.
- Beraien hezkuntza zereginetan familiak orientatzea eta ikastegian beraien partehartzea sustatzea.

2. EREMU EZBERDINETAKO EKINTZAK

2.1 Tutore eta ikaslegoaren arteko harremana

Instrumentuko irakaslea arituko da tutoretza lanetan. Tutore eta ikaslegoaren arteko harremana, nagusiki, alde hauetan bideratuko da:

- Irakaskuntzaren ikuspegi orokorra eman, ikasketaren prozesuak integratuz, ikasketa tekniketan eta ohituran enfasia jarritz.
- Ikaslegoak Musikarekiko duen motibazio pertsonala sustatu.
- Bakoitzaren garapena indartu, autoestima, heldutasuna, ziurtasuna eta norberaren konfidantza landuz.
- Orientazioa eman, etorkizunari eta ikasketen aldiberekotasunari begira ikasleriaren asmo eta ahalmenak orekatuz.
- Bizikidetza on baten oinarriak indartu, estualdien irtenbidean – behar izanez gero – bitartekaritza eginez, akordioa eta konponketa bilatuz.

Funtzio hau aurrera eramateko, irakasleri tutoreak, une eta komunikazio bideak ezarriko ditu, batetik, ikasleriari Musika irakaskuntzak globalki beste ikaskuntza orokorrekin daukaten elkarrekiko erlazioa ezagutzen laguntzeko, eta bestetik, euren gaitasunak eta asmoak orekatuz, beraien formakuntza eta garapen pertsonala balioztatzeko.

2.2 Tutorea eta irakaslegoaren arteko harremana

- Hezigarria eta informatzailea: tutoretza, irakaslego berriari ikaslegoaren egoera, arazo zein izaera jakinarazteko tresnarik egokiena da. Horretarako, ezinbestekoa da ikasleriaren txostenetan, ikasturtez ikasturte, beraien maila, ikasketa ohitura edo eta ikasgai jakin batzuetako zailtasunei buruzko informazioa egoki jasotzea, egungo eta hurrengo irakasle taldearen kontsulta tresna lez, lana erraztu dezan.

- Aholkularia eta antolatzailea: Bereziki, familia eta ikaslearenganako hurbiltasun estuagatik, tutoretza taldekatze, ordutegi, familiarte zein

lagunarte egoera bezalako irizpideak zehazteko gakoa izan daiteke, ikaslearen ikasteken etekinaren hobekuntza nabariki lagundu dezakelarik.

- Aholkulari akademikoa: arlo zehatzetako emaitza ezkorrak hobeto doitu daitezke tutoretzak ikaslearen egoera eta baldintza konkretu eta pertsonalak ezagutzen baditu, ondoren behar diren neurriak berbideratzeko.
- Bitartekaria: Ikasleri eta irakasleriaren arteko ulermen bideratzaile gisa.
- Motibatzailea: Hezkuntza kalitate handiago baten alde, lankidetzeta eta irakasle taldearen arteko jarrera baikorra sustatzen ditu; irakasle talde osoaren zeregina izan arren, tutoretzari dagokio nagusiki heziketa zereginaren gainbegirada zorroztea, ekintzen azterketa eta etenbako balorapen jarrera sustatuz.
- Koordinatzailea: tutoretzara irakaslego osoaren informazio eta txosten guztiak iristen dira, beraz, helerazitako eritzi eta irtenbideak koordinatzen ditu. Horretarako, bere betebeharra izango da batzarrak konbokatzea, informazioa emateko, ebaluaketaren aurretik biltzeko, irakaslegoa koordinatuta egoteko eta ikasturtean zehar ikaslegoaren informazio osoa izateko.
- Ebaluatzailea: Tutoretzak, azkenik, bai beraren, bai ikaslegoaren eta baita irakaslegoak ikaslegoaren alde egindako lanaren jarraipena egin behar du; irakasle taldearen erabakiak jasoaz, ikasle zein beraien arduradunak informatzen ditu eta era berean, tutoretza beraren ebaluaketa zein tutoretza ekimenaren planaren autoebaluaketa burutzen du.

Ekintza hau aurrera eramateko, irakaslegoak elkarlanerako eta helburuen partekatze jarrera azaldu behar du. Irakaslegoak komunikabide eraginkorrak ditu ikaslegoaren bilakaeraren jarraipena egiteko eta hala, ikasleriaren eboluzioaren jarraipena etenbakoa da, eskuhartze zuzen eta eraginkorra ahalbideratuz.

2.3 Familiaren zeregina: Irakaslego (tutore eta irakasle talde) eta familien arteko elkarlana hezkuntza fase desberdinetan.

Tutoretza-familia arteko harremanen unerik nabarmenena, hasierako lehen batzarra da, hurrengo helburuak bete beharko dituelarik:

- o Ikastegiaren egitasmo pedagogikoaren azalpena; Hezkuntza plan orokorraren antolaketa:
 - Irakaskuntza mailak eta hauek osatzen dituzten arlo desberdinak.
 - Irakaskuntza aukera eta eredu desberdinak.
- o Hezkuntza prozesuan beraiek daukaten inplikazioaren eta parte hartzearen garrantziaz jabetzea.
- o Ikasleriaren nahiz gainontzeko irakaskuntza erkidegoko kideen

eskubide eta betebeharrak ezagutzea (A.J.A.).

- o Gurasoek ikastegiaren bizitzan daukaten partaidetza bideak ezagutzea.
- Seme-alaben etekinaren erantzunkizunaren ardura hartu: etengabeki animatu, ikasketarako leku eta ordutegi egokia prestatu, ikasketa gainbegiratu, ongieginaren betebeharra materialki saritu eza,...
- Ikastegiaren eskolla egutegia nahiz ordutegia ezagutzea .
- Ikastegia asistentzia hutsegiteez garaiz abisatzeko nahiz egoki justifikatzeko garrantziaz kontzientziatzea.
- Tutoretza eginkizunak ezagutzea, harreman sistema eraginkor bat ezarri (zuzendaritzaren eta idazkaritzaren jendeaurreko ordutegiak, hitzorduak, telefono arreta ordutegia, mail kontaktua,...).
- Seme-alaben irakasleak ezagutzea.
- Ikastegiaren alderdi fisikoa ezagutzea (sarrerak, ikasgelak, beste gelak...)
- Gainera, familien partaidetza, hezkuntza legeetan aurrez ikusita dago:
 - o Gurasoen partaidetza askea hezkuntza arloan.
 - o Gurasoen elkarteak, hurrengo helburuak ditu:
 - Beraien seme-alaben hezkuntzari dagokion guztian, guraso eta tutoreei lagundu.
 - Irakaskuntza jardunetan parte hartzea

HEZIKETA PLANAREN FASE DESBERDINAK

Ikastegiko arduradunek landutako hezkuntza planaren 2. mailan ezinbestekoa izango da familien partehartzea hurrengo arloetan:

- Aurretiazko lehen bilera: ikasturtearen aurkezpenera asistitzea; bertan, fase hori osatzen duten ikasturte bakoitzeko arlo desberdinak azalduko dira eta baita irakaskuntza aukera eta eredu bakoitzari dagozkien planteamendu eta araudia ere. Bukatzeko, eritzi-trukeari ekingo zaio.
- Promozioa errazteko hartu behar diren neurrien askoren-artekoazterketa.
- Musikari lotuta doazen burutu beharreko beste jardunei buruzko akordioa (ekintzak, emanaldiak, elkartrukeak,...).
- Azken kurtsoan, jarraipen eta orientabidea irakaskuntza profesionaletarako sarbide frogei begira.
- E-maila kaxkarrei aurre egiteko, irakasleri-guraso arteko neurrien adostasuna.
- Errefortzu neurrien adostasuna.
- Eguneroko ikasketen jarraipena egitea.

- Asistentzi hutsegiteen zuribide egokia egitea.

Familien partaidetza ezinbestekoa izango da 3. MAILAN, hurrengo alderdietan:

- Aurretiazko lehen bilera: ikasturtearen aurkezpenera asistitzea; bertan, fase hori osatzen duten ikasturte bakoitzeko arlo desberdinak azalduko dira eta baita irakaskuntza aukera eta eredu bakoitzari dagozkion planteamendu eta araudia ere. Bukatzeko, eritzi-trukeari ekingo zaio.
- Irakaskuntza Profesionaletarako sarbide frogetara aurkezteko hartu beharreko neurri zehatzei buruzko jarraipen eta orientabide berezi eta xehatua.
- Aurreko puntuari lotuta, errefortzu neurriei buruzko akordioa.
- Asistentzi hutsegiteen zuriketa zuzena.
- Musikari lotuta doazen burutu beharreko beste zenbait jarduneiburuzko akordioa.
- Ikaslearen lehentasun, preferentzia, zaletasun edo hautaketa indibidualei buruzko adostasuna: estiloak, generoak, taldean aritzeko moldaketa eta konposizio orientabideak...

3. PLANGINTZA

Funtzio hau aurrera eraman eta sakonki garatzeko, ikastegiak baditu zenbait baliabide, topagune eta ekintza:

3.a Lehenengo lauhilekoa:

1- Ikasturtearen aurkezpenera. Zuzendaritza Taldeak batzar informatzaile bat izango du familiekin hurrengo puntuetatik aritzeko:

- Ikastegiko hezkuntza egitasmoa; helburuak eta lehentasunak:
- Diziplinartekotasuna: 2. Maila osatzen duten 4 arloek duten garrantzia ikaslearen musika formakuntza orokorrean: musika lengoia, abesbatza, instrumentua eta talde jarduna.

2- 2. Mailako ikasketak burutzeko aukerak eta eredu desberdinak; ikastegian indarrean dagoen ikasketa araudiaren azalpena.

- Instrumentuen hautaketa, aholkularitza: talde jardunaren sustapena helburu, ikastegiaren aniztasun instrumentalaren aldeko apostua.

3- 3. Maila: helburu desberdinak; lehentasunak eta zaletasunak/ joerak.

- Instrumentu mailegoa.
- Ebaluaketa (irizpideak eta adierazleak).
- Ikasketa ohituraren premia.
- Ekintzetan eta emanaldietan parte hartzearen garrantzia.
- Musikaren presentzia ikaslearen inguru hurbilean.

3.a.1 Ikasturteko ebaluaketa egin ondoren, tutore bakoitzak ikasturteko egoera eta ikasgai bakoitzeko helburuak jakinaraziko dizkie ikasleei/gurasoei. Era berean, ikasketa tekniken garrantzia azpimarratuko die.

3.a.2 Instrumentuko irakaslea tutorea izanik, 2.1 mailako ikasle berrien gurasoekin batzartuko da aldizka, Ikasketari buruzko orientazio eta argibideak emanez.

3.a.3 1. Ebaluaketan: ebaluaketa momentuan, etekinaren hobekuntzarako bideak ezarriko dira, baita, ikasleari jarraipena egingo dion irakasle taldea.

3.a.4 Zuzendaritza Taldea eta 2.5, 2.6ko ikasleen gurasoen arteko batzarra, ikasketen orientabide eta irtenbideei buruz.

3.b Bigarren lauhilekoa:

3.b.1 Irakasle taldeen aldizkako batzarrak: ikasleen jarraipen indibidualari ekin, gaitasun edo eta defizientziak aztertu, hartu beharreko neurri zein erabakiak ezarri.

3.b.2 2.4 mailako ikasleen gurasoekin banakako bilkura, zikloaren bukaeraz informatzeko eta ondorengo aukerez mintzatzeko.

3.b.3 2.6 mailako gurasoekin bilkura, aurrerantzean ikasleek dauzkaten asmoez eta aukerez mintzatzeko (3. Mailarako pausua).

- Banakako errefortzu neurrien martxan jartzea.

3.b.4 Ekintza bereziak nahiz ate irekien jardunaldiak burutu, ikasle berriak zein beraien gurasoek ikastegiak eskaintzen dituen ikasketa desberdinak ezagutu ditzaten.

Bi ebaluaketa-aldi hauez kanpo egitekoak:

3.b.5 Ikasleen ikasketen jarraipena jasoko duten txostenen lanketa.

3.b.6 Tutoreek, ikasturtean zehar, gutxienez batzar bat izango dute ikasle bakoitzaren gurasoekin.

3.c Baliabideak:

3.c.1 Tutoretzaren ekintzen jarraipen inkestak.

3.c.2 Etxeko giroko egunerokotasunean Musikaren presentziari buruzko inkestak gurasoei.

3.c.3 Ebaluaketa aktak. Irakasle taldeen jarraipenpean dauden ikasleen aipamena.

3.c.4 Irakasleriaren oharren erregistroa.

3.c.5 Tutoretzaren ordutegia: Ikaslearen klasearen azken 15 minutuak erabilgarri izango dute gurasoek tutorearekin berba egiteko.

4. EBALUAKETA PLANAREN IRIZPIDEAK

Ikasturteko memoriari, Tutoretza Planaren ebaluaketa-eremu bat erantsiko zaio. Bertan, honako alderdiak jasoko dira:

4.1 Ikaslearen psikosozial garapen maila.

4.2 Ikasketa-ikasketa jardunbidearen optimizazio maila.

4.3 Irakaskuntza taldearen koordinazioaren balorapena.

4.4 Ikastegian familien parte-hartzea eta irakaskuntza beharrekin inplikazio maila.

Ondarroan , 2021 eko uztailaren 16 an

Zuzendaria